



Guzurmendi-Mastieta deritzon UE II egikaritze-unitatea urbanizatzeko obrak kontratatzeko baldintza-orriak aldatzea.

Udalbatzak, 2015eko abuztuaren 4ko bilkuran, baietsi egin zuen, akordio bidez, ASCOBik Guzumendi-Mastieta deritzon UE II egikaritze-unitatea urbanizatzeko obrak kontratatzeko baldintza-orrien aurka aurkeztutako idazkia.

Horiek horrela, aldatu egin da kontratisten sailkapena arautzen duen zortzigarren hitzarkina. Beraz, ondoko hau dioen lekuan:

A taldea, 1 eta 2 azpitaldea, c) kategoria.

E taldea, 1 azpitaldea, d) kategoria

G taldea, 4, 5 eta 6 azpitaldea, c) kategoria

I taldea, 1, 5 eta 6 azpitaldea, b) kategoria."

Hau esan behar du:

A taldea, 1 azpitaldea, c) kategoria.

E taldea, 1 azpitaldea, d) kategoria

G taldea, 4 eta 6 azpitaldea, c) kategoria.

Horregatik, bada, jendaurreko aldi berria irekitzen da proposamen berriak aurkezteko, edo, hala badagokio, lehendik formalizatutakoak aldatzeko. Jendaurreko epe hori 26 egunekoa da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Guzurmendi-Mastieta deritzon UE II egikaritze-unitatea urbanizatzeko obraren baldintza-orri arautzaileetan dauden gainerako hitzarkinek beren hartan jarraitzen dute.

Gorlizen, 2015eko abuztuaren 14an

ALKATEA

Arantza Etxebarria Villabeitia